




Sagardo Astea urriaren 5etik 14ra bitartean Igartubeiti Baserri Museoan.

📅 Urr 6, 2016 🌐 Saillatu gabea 💬 0 comments



Aurten ere, bisitariek sagar prentsaketak ikusteko aurrez izena eman ahal izango dute. Bestalde, Sagardo Asteari hasiera emateko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren XV. Sagardo Lehiaketako irabazleei sariak banatuko zaizkie. Aurtengo edizio honetan ere **GASTRONOMIAK** pisua izango du. Igartubeitin, asteburuan, zanpaketak, antzezpenak eta sagar erakusketa izango dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Igartubeiti dolare-baserri hau zaharberitu du, baserriaren urrezko aroko, hau da, gure historiako garai jorienetako, adierazle bikaina berreskuratze eta gure arbasoen bizimodura hurbiltzeko asmoz. Museo bizia izateko

sortua denez, eta aurreko esperientzien arrakasta kontuan harturik, XVI. mendeko baserriarren ohiko prozedura jarraituz, dolareko lana berreskuratu eta jendeari jarduera haren berri zuzenean eta zehatz-mehatz eskaintzea erabaki dugu.

XVI. mendeko zurezko egitura hau indarrez bihurtzea, sagarraren usaina eta lehen muztioaren lurruna, aspaldiko lan baten lekuko izatea.... jardun honetan dena da zirrargarri.

EGITARAUA:

Hasiera ekitaldia eta aurkezpena, urriak 5, asteazkena, 11:00etan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak XV. Sagardo Lehiaketako irabazleei diplomak ematea

Zanpaketa:11:30

Zanpaketak

Sagar zanpaketak egunero izango dira, goizez, 11:30etatik aurrera. Asteburuan eta jaiegunetan, urriak 7, 8, 9 eta 12an zanpaketa bakarra egingo da 12:00etan.

Aurten lehen aldiz bisitariek sagar prentsaketaz gozatzeko aurrez izena eman ahal izango dute.

Zanpaketa bakoitza baino lehenago 50 kg sagar gehituko dira kirikoketa erakustaldi bat egiteko. Urriak 12an ordea, Jo ala Jo elkartekoez kirikoketa egokiak egin ditzaten, 150 kg sagar gehituko dira zanpaketaren aurretik.

Antzezenak

Urretxu-Zumarragako Karmakros antzerki taldekoek, XVII. mende hasieran baserrian bizi izandako Kortabarria familia antzeztuko dute.

XVI. mende bukaerako eta XVII. mende hasierako janzkerek jantziak, baserria erakutsiko diete bisitariei eta beraien zereginei buruz hitzegino diete. Bisitariak elikadura, sagardogintza, ohe- jantzi eta ehun, altzari konponketa, lanabes eta egur egitura, ereitea, baratze produktuak eta abarrei buruzko arloetaz jabetuko dira.

Ostiralean, urriak 7an, larunbatean, urriak 8an, igandean, urriak 9an eta asteazkenean urriak 12an:

11:30-12:00; 13:00-13:30

Sagardoa kirikoketa erritmora

Arizkongo Jo ala Jo taldeak sagarrak kirikoketa erritmoan zanpatuko ditu urriak 12an 12:00etan. Kirikoketa, pisoiekin, sagarra txikitze mazoekin egiten den txalapartaren aldaera da.

Antzina dolare baserrietan ohikoa zen ohitura hau, Igartubeiti Baserri Museoan gogora ekarriko da, usadio zaharrak berreskuratu eta ikertzen dituen kultur elkarte honen eskutik.

Sagar erakusketa

Sagar bariedadeak ikusgai izango dira baserriaren atarian, sagardo astearen baitan: argentina sagarra, pinoi, errege gaxie, txori sagarra, mendeun sagarra, madari sagarra eta limoi sagarra, besteak beste.

Bisita gidatuak San Migel Ezkioko elizara

Urriak 7, 8, 9 eta 12an bisita gidatuak eskainiko dira XVI. mendeko San Migel Ezkioko elizara. Aipagarriak dira, arku zorrotzeko ataria, erretaula errenazentista, San Migelen irudia eta Germano mendiko agerraldien erliebeak, besteak beste.

Bisitak 10:30etatik 11:30etara izango dira eta aurrez izena ematea beharrezkoa da, 943 72 29 78.

Sagar tentagarriak: tailer gastronomiko-sentsoriala, 4 urtetik gorako familiei zuzendua

DATA: Urriak 8, 16:30etan

Sagar dultze dastaketa

DATA: Urriak 13, 19:00etan

Sagar barietate ezberdinekin egindako sagar dultzeen dastaketa, Rafa Gorrotxategiren eta Sagardoetxearen eskutik. Euskadiko Enogastroomia Museo eta Guneen Sarearen lankidetzarekin.

Toki mugatuak. [Izen ematea](#), 943 72 29 78

“Sagardo Astea” Menu berezia

Ezkioko Argindegi ostatuan, Labekoa Jatetxean eta Itsasoko ostatuan Sagardo Astea menu berezia eskainiko da urriaren 5etik 14ra bitartean.

ASTE OSOAN ZEHAR:

IX. Sagardo Astea Argazki Lehiaketa

Sagardo Astea kamaratik edo mugikorretik! Parte hartu eta lortu saria!

Informazioa eta oinarriak

Sagarra & Sagardoa errezeten lehiaketa

Bidali zure errezeta igartubeiti@gipuzkoa.eus-era eta irabazi 2 lagunentzako bazkaria. Informazioa.

Programa ikusi

Bilatzailea

| | |
|----------------------|--------|
| <input type="text"/> | Bilatu |
|----------------------|--------|

Privacidad - Condiciones

Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak

Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura

Lehiaketak

Museoak

Sagardoa

Sagardotegiak

Sagarra

Sagastia

Turismoa

Artxiboak

Hautatu hilabetea



ZATOZ ETA GOZATU

**SAGARDOAREN
LURRALDEA**
el territorio de la vida

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

 **943 550 575**

Privacidad - Condiciones

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Neurrira egindako esperientziak

Hautatutako ibilbideak

Beste proposamenak hemendik gertu

Nola mugitu

Non lo egin

Gidak eta informazio praktikoa

SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Nola iritsi eta sarbideak

Tarifak eta ordutegiak

Bisita erreserbatu

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

SAGARDO FORUM

Informazio orokorra

Argazkiak

Hitzaldiak

AGENDA

BLOGA

HEDAPENA

Boletina

Buletinera harpidetza

Sare sozialak



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua

LEGEZKO INFORMAZIOA

NOR GARA

PROIEKTUAK

AKORDIOAK

KONTRATATZAILEAREN PROFILA